

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaileen eta bazkideen sareak osatzen ditu funtsezko elkarteak.

Gure enpresak beste enpresa batzuekin aliantzak egingo ditu (eskolako materiala egiten duten beste enpresa batzuekin) hainbat arrazoi direla medio; bere negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko.

Gure produktua ,gehienbat, online bidez salduko dugu, baina beste enpresa zein dendei ere salduko diegu beraiek saldu dezaten gure produktua.

Gure proiektua aurrera ateratzeko hauek dira bazkide bakoitzak jarriko dituen funtsezko baliabideak:

Eneko: Lehen esan bezala, gure produktua gehienbat online bidez saltzeko asmoa dugu, beraz, beharrezkoa da webgune bat izatea eta Eneko horretaz arduratuko da. Teknologia munduari buruz asko daki eta esperientzia du aurretik beste proiektu batzuetan ere lan egin baitu teknologia munduan. Beraz, webguneak sortzeko gaitasuna jarriko du Enekok.

Ane: Kontabilitate matematikoaz arduratuko da gehienbat. Sarrerak ahalik eta handienak izaten saiatuko da eta produktibitatea ahalik eta handiena izatea ere ahaleginduko da. Izandako gastuak kontuan hartuta zenbateko irabaziak izan dituen enpresak kontrolatzeaz arduratuko da eta aholkuak ematen saiatuko da enpresaren egoera hobetzen joan dadin. Beraz, kontabilitaterako gaitasuna jarriko du Anek.

Maialen: Marketing eta salmentarekin lotutako sektoreaz arduratuko da Maialen. Gure produktua ahalik eta gehien saltzeko estrategiak jarriko ditu abian eta beti ere, kontaktuan egongo da bezeroekin zein hornitzaileekin. Merkatuaren egoera kontuan hartuta gure produktua asko saltzeaz arduratuko da eta etorkizunera begira, pixkana-pixkanaka enpresa handitzen joateko helburuarekin berrikuntzak proposatzen

saiatuko da. Produktuaren publizitateaz arduratuko da ere. Beraz, salmentarako abilezia jarriko du Maialenek.

Igor: Produktuaren diseinuaz arduratuko da gehienbat. Beti izan du diseinatzeko grina eta abilezia hori aprobetxatuz, gure produktua diseinatuko du. Salmentarako egokiak diren koloreak eta teknika estrategikoak erabiliko ditu, gure produktua hobekien saltzeko. Beraz, diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna jarriko du Igorrek.